



# Mundubat

20

años de solidaridad  
urte elkartasunean  
1988 - 2008



**Giza Eskubideak, gatazkan  
dauden herrialdeetan**

# Aurkibidea



03 Sarrera: Giza Eskubideak eta gatazka armatuen testuinguruak



05 BADIL (PALESTINA)

09 FENSUAGRO (COLONBIA)



15 AFAPREDESA (SAHARA)



## Giza Eskubideak eta gatazka armatuen testuinguruak

**Z**enbait urtetako krisiaren ondoren, Nazio Batuen zuzendaritzapeko nazioarteko zuzenbide-sisteman, zenbait zantzu leun agertu ziren gure aurrean, eta, oraindik ere, albiste handi moduan eskaintzen dizkigute, giza eskubideen nazioarteko arauak eta era guztietako gatazketan ezarri beharreko arau humanitarioak etengabe urratzeko estrategiak bertan behera utzi direla edo utzi egingo direla adierazteko. Irak amaiera izan zela ere esan zen. Ilusio iragankorra izan zen: mundua ez da aldatu eta ez dira behar besteko baldintzak ematen, biztanle zibilen eta, batez ere, txiroen eskubideak gatazketan errespetatuak izan daitezzen. Testuinguru horretan, hain zuzen ere, MUNDUBATEk zenbait erakunde eta erresistentzia zibili laguntzen die.

Larderiaren eta aldebakartasunaren zenbait ezaugarri alde batera utzita, zuzenbidea era formalean edo konpromisoak era birtualean balioztatzeko proposamenak ezartzeak ez du esan nahi munduko botere-guneen potentzia erasotzailea aurrerantzean horixe bera izango ez denik edo ustezko aldeaniztasun zabalaren atzean mendetako indarkeria-mekanismoak berritzen ez direnik.

2008. urtearen amaieran, lekukotasun hunkigarriak egin zuen eztanda gure aurrean, baina gugandik urrun. Mendebaldetan Gabonak ospatzen genituen bitartean, Gazako giza lurraldean eraso ankerra gertatu zen, eta, gutxienez, lau irakasbide utzi dizkigu. Irakasbide horiek, gainera, MUNDUBATEkin lan egiten duten beste herrialde edo eskualde batzuetan berretsi dira; esate baterako, Chiapasen, Kolonbian eta SEADen:

1 Ekintza urratzailearen sine qua non baldintza edo abagune-baldintza ez da norabide bortitz horretan jarduteko erabaki onartuaren ondorioa (horixe bera da berezko ekintza kriminala), besteen isiltasunaren eta onespeneraren ondorioa baizik. Agerikoa da inongo eragileak martxa geldiaraziko ez duela eta, horren orde, lankidetzeta-modu aktiboak zein pasiboak ezarri daitezke, kanpaina horren eraginkortasunaren mesedetan.

2 Ekintza horretan, eraso alderantzikatu daiteke eraginkortasunez. "Hankaz gora" jartzean, "defentsatzat" hartuko denez, zuzenbidearen ekintza bortitz eta urratzailea zibilizatutzat eta erreaktibotzat jotzen dute azkenean. Horren ondorioz, beste alderantziketa sortzen da: herrien erresistentzia zibila garaitu egin dezakete azkenean, eta, terrorismoaren aurkako borrokaren izenean, gerra justifikatu eta gizarte-sare garrantzitsuak kriminalizatu daitezke.

3 Agerikoa denez, gerra hori baliabide handiagoez mantendu eta hedatu egin dute, hau da, funtsezko abantaila ugari dituzte edo, beste era batera esanda, gatazka asimetrikoa edo desberdina sakontzen da.

4 Neurri edo enuntziatu zehatz batzuetan izan ezik, honako hauxe da zirkuitu garrantzitsu eta eragingarrienen de facto erantzuna, nahiz eta giza eskubideen eta nazioarteko zuzenbidearen proposamenak sustatu eta zenbait forotan diskurtso itxaropentsuak eskaini: eraso blindatzea edo ordena juridikoa behin eta berriro urratzen duten arduradun eta instantziei zigorgabetasun-bermeak eskaintzea.

Are gehiago, emakumeen eta euren erakundeen egoerak txarrera egin du gatazka horietan eta egitate horri buruzko ondorioak atera beharko genituzke edo atera genitzake. Bertan, hain zuzen ere, erresistentzia bizi-bizia da, nola egin badakitelako eta inplikatu egiten direlako.

Ikusten duguna hartzen dugu abiapuntutzat, gurekin lan egiten duten herriek gatazka ankerrean adierazitakoa. Bertan, nola edo hala, borrokatu egiten dira, erresistentziaren eta eraldaketaren arloan dituzten funtsezko helburuei eutsita. Horrela, bada, ez dugu inolaz ere onartzen gatazkak, euren zergatiak, erantzuleak, interesak eta ondorioak ukatzea, eta nabarmendu egiten dugu nola, zergatik eta nolako baliabideen bitartez egiten dute erresistentzia biztanle txirotu eta biktimizatu ugari. Izan ere, indarkeria politiko, ekonomiko eta

kulturalen jatorriei aurre egin behar diete, bai eta larriagotzen diren bazterketari zein okupazioari eta eguneroko zapalkuntzaren nahiz militarizazioaren ageriko ondorioei ere. Egoera halakoxea da Chiapasen, Kolonbiako eremu zabaletan eta Saharako zein Palestinako lurralde okupatuetan.

Ezbeharraren eta itxaropenaren arloan ezaugarri desberdinak dituzten lau gatazka bizi-bizi horietan, termino praktikoak ez ezik, gutxieneko gizatiartasunerako sortu beharreko postuluak ere hartzen dira kontuan, hau da, bertan ere pentsaera-batailak, ondorioak, beste kontzeptu batzuetarako iragaitzak daude, konpondu gabeko indarkerien esperientziaren ondoren eta mendebaldeak bere gain hartutako ustezko balio unibertsalekin bat ez datozen metodoen ezarpenaren ostean: zigor kolektiboen debekua.

Mendebaldeko Saharan eta Palestinan, indarkeria larriko kasu hutsak baino gehiago aurkitzen dugu. Gazan, hain zuzen ere, ankerkeriaz eta basakeriaz ezarri da berriro. Beraz argi eta garbi dago estatus hori aldatu ez dela, atzera egin ez duela. Bertako herriek hurrenez hurren jasaten dituzten okupazioen ondorioz sortutako egoera zabalak dira, eta nazioarteko zuzenbidearen aurkakoak dira. Bertan, gainera, babesik gabeko biztanleak zigortzeko eragiketa berriak jartzen dituzte abian. Ekintza horiek gaitzesgarriak omen dira zuzenbidearen arabera, baina inolako zalantzarik gabe, euren aldeko erregimenek interes zitalez defentsa politikoaren premiei eta ordena juridikoari buruz egindako interpretazioaren babespean daude.

Testuinguru zailtan baina ez atzemanezinetan, antzeko urraketak daude nekazarien eta indigenen erkidegoen kontrako indarkerian, Kolonbian eta Chiapasen gertatzen den bezala. Benetako gatazkak dira, baina batzuetan lotan edo sor daude; eta epealdi zehatz batzuetan, bor-bor.

Ahalik eta balantze eguneratuena eginez gero, edozein behatzaile informaturentzat lau egoera horietan gatazka-arloko oinarria eta potentziala daude, baina aldi berean, hausnarketa eta ekintzarako premiak ere badaude, teorian zein praktika bizi-bizian giza eskubideen zein zuzenbide humanitarioaren balioa berresteko. Izan ere, estrategia horiek 1948tik nazioen hitzarmenaren bidez modu formalean onartutako giza eskubide unibertsalak urratzen dituzte, baina ere berean, minimo humanitarioei ere egiten diete iseka, nahi eta gatazka armatuen zuzenbidearen ardatz nagusian sagaratuta dauden: 1949ko Genevako lau hitzarmenak. Hori dela-eta, urraketa horiek onartzeko logika da nagusi.

Beraz, gure ustez, nolabaiteko eragina duten ekintzen bitartez, iparraldean aurre egin behar diogu indarkeriarako inertiaren logikari, hau da, instituzionalizazioari edo normalizazioari. Ikuspegi horretan, gutxienez, erakundeei eman behar diegu hitza, begirada solidarioak eta aukerako jarduketak eskaintzen dizkigutelako indarkeria sakonak gaingutzeko orduan.



## BADIL (Palestina)

**P**alestinako herriaren oroimen kolektiboan, 1948an eratutako Israelgo estatuaren sorrera 'Al-Nakba' da, hondamendia, alegia, orduan palestinarren exodoa hasi zelako. Israelgo estatua aldarrikatu ostean arabiarren eta israeldarren artean garatutako lehen gerraren ondorioz, gutxi gorabehera 914.000 palestinarrak behartu zituzten euren etxeak eta lurak uztera, eta Israelgo estatuko herrialde mugakideetarantz bota zituzten. 1948an, Nazio Batuen Erakundeak Palestinako Errefuxiatuentzako Agentzia (UNRWA) sortu zuen, eta, bere esanetan, honako hauek dira errefuxiatu palestinarrak: "1946ko ekainetik 1948ko maiatzera Palestinan bizi eta 1948ko gerra arabiar-israeldarrendaren ondorioz etxeak nahiz ondasunak galdu zituzten pertsonak".

1967an, Sei Eguneko Gerraren ondoren, Palestinako herria kanporatzen jarraitu zuten. Gerra horretan, hain zuzen ere, sei egunetan baino ez, Israelek honako lurralde palestinarrak atxiki zituen bere estatura: Gazako lurraldea, Zisjordania, Jerusalem, Sinaiko penintsula egiptoarra eta Golango gainak (Siria). Nahiz eta Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak 242. Ebazpenean Israeli eskatu atxikitako lurraldeak itzultzeko, gaur egun Israelek Sinaiko penintsula baino ez dio itzuli Egiptori. Gerra horren ondorioz, 350.000 inguru lagunek euren lurak utzi behar izan zituzten, eta batzuek bigarren aldiz egin behar izan zuten, gainera.

BADILek salatu egiten du Israelek ez duela errefuxiatuen inguruko inolako erantzukizunik bere gain hartzen eta ez duela itzultzeko eskubidea aitortzen, 1948ko abenduan NBEko Batzar Nagusiak emandako 194. Ebazpenean horrela baieztatu arren. Ebazpen horretan, Batzar Nagusiak modu ofizialean bermatzen du itzultzeko eskubidea, bai eta itzuli nahi ez duten errefuxiatuentzako kalte-ordainerako eskubidea ere. Hain zuzen ere, honako hauek adierazten da 194. Ebazpenean: "...auzokoekin bakean bizitzeko asmoz, errefuxiatuek etxera itzuli nahi badute, lehenbailehen itzultzeko baimena eman beharko diete, eta, horrez gain, kalte-ordaina eman beharko diete itzuli nahi ez dutenei...".

### Zer da BADIL?

BADIL GGKE independentea da, eta erbestean bizi diren palestinarren interesak ordezkatzeko ditu. 1998an sortu zen informazio eta ikerketa zentro moduan, 1948ko eta 1967ko bi gerra arabiar-israeldarren ondorioz euren lurak uztera behartu zituzten errefuxiatu eta barne-lekualdatu (IDP) palestinarren inguruko interesa eta herri-inplikazioa sustatzeko. "Badeel" hitz arabiarra da, eta "alternatiba" esan nahi du, hau da, erakundeak Palestinako herriarentzako errealitate alternatiboa sortzeko egiten duen ahaleginaz ari da. Horrela, errefuxiatu eta barne-lekualdatu palestinarren eskubide indibidualak eta kolektiboak errespetatuko dira. Exodo palestinarra hasi zenetik hirurogei urte igaro direnean, BADILek gogor lan egiten du, nazioarteak talde honen arazoaren konponbidean porrot egin duela salatzen. Batez ere, honako hauek eskatzen du erakundeak:

- 1 Euren lurretara duintasunez eta segurtasunez itzultzeko eskubidea
- 2 Nahitaez kanporatutakoan galdu dituzten lurak berreskuratzeko eskubidea
- 3 Euren giza eskubideen urraketengatiko kalte-ordainerako eskubidea

BADILek zenbait jarduera garatzen ditu, eta, euren artean, giza eskubideen eta errefuxiatuen eskubideen inguruan sentsibilizatzeko tailerren antolaketa nabarmentzen da. Era berean, sorterrietarako bidaiak antolatzen ditu, eta informazioa eskaintzen die giza eskubideen arloan lan egiten duten erakunde eta komunikabideei. Bestetik, Palestinako herrialde mugakideetako errefuxiatu-kanpaleketan bizi direnen giza eskubideen urraketen berri ere ematen du. Gaur egun, errefuxiatuen herenak 58 kanpaleketan bizi dira: 8 Gazan daude; 19, Zisjordanian; 10, Jordanian; 12, Libanon; eta 9, Sirian.

## Etorkizuneko erronkak

2008an, BADILek hamar urte bete zituen, eta, nazioartean horren inguruko interes handia sortu zenez, aukera aparta izan zen "Eskubideak abian jartzea" hiru urteko lan-plana onartzeko. 2010erako ezarritako erronkaren arabera, BADILek bere lan eragingarria sendotuko du, "itzuleraren ametsa" kanpaina politiko bihurtzeko eta itzulera-eskubidearen aldeko ahalik eta jende gehien erakartzeko. Horrez gain, ahalegin handia egingo dugu, itzultzeko eskubidea nazioarteko agenda politikoan sartzeko. Plan horretan giltzarria da Palestinako elkartegintza-sarea indartzea, BADILen lanaren oinarria delako. Hain zuzen ere, partaidetzazko hezkuntza-jarduerak sustatzen ditu, itzulera-eskubidearen kultura eta jarduna sortzeko.

## Elkarrizketa

### 2008an, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren (GEAUn) eta Al-Nakbaren urteurrenak izan ziren. Zer leku betetzen dute giza eskubideek BADILen lanean?

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren (GEAUn) 60. urteurrena Al Nakbaren 60. urteurrena ere bada. Era berean, nazioarteak palestinarren eskubideak errespetatzeko eta bermatzeko ahaleginean izandako porrotaren 60. urteurrena ere bada. Horren adierazgarri, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren zirriborroa eta Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Konbentzioa, Palestinan, Al Nakba, prestatzeko lanaren ondorioz, hainbat eta hainbat gauza erantsi ziren bi tresnetan, bai eta GEAUn itzultzeko eskubideari buruz xedatutakoa ere (12. artikulua). Bestetik, argi eta garbi dago Palestinako barruko lekualdatuek eta errefuxiatuek ez dituztela barruko lekualdatuen eta errefuxiatuen artean ezarritako nazioarteko tresnetako eskubideak eta onurak. Palestinako errefuxiatuak munduaren gainerako beste errefuxiatu batzuk bezalakoak dira. Jazarpenaren, gatazka armatuaren eta izaeraren beraren suntsipenaren ondoren oso zaila izan arren, etxetzat hartzen dituzten lekuetara itzultzen saiatu diren beste errefuxiatu batzuen antzera, palestinarentzat ere itzultzea da euren egoera zailaren konponbide nagusia. Palestinarentzat, itzultzean, bizitzen hasiko dira, errefuxiatuek orain dela hamarkada asko kendutako lurrarekin duten kidetza sakonari erantzungo diete eta palestinarren zein juduen artean eratu beharreko harremanak justizian eta berdintasunean

oinarrituko dira. Itzultzean, beraz, eskubideak berreskuratu edo eskubideak edukiko dituzte, eskubide guztiak, alegia.

1948an gertatutako nahitaezko lehen lekualdaketa jendetsuenetik sei hamarkada igaro direnean, oraindik Palestinako errefuxiatuek (barruko lekualdatuek) ez dute ez irtenbide ez ordain iraunkorrik, ezta itzulera, leheneratze eta konpentsaziorik ere, giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea, NBEren ebazpenak eta, batez ere, Nazio Batuen Batzar Nagusiaren 194. ebazpena (III) kontuan hartuta. Gaur egun ere, palestinarrak lekualdatzen badituzte ere, ez dago eurentzako inolako babes eraginkorrik.

BADIL irabazi-asmorik gabeko erakunde independentea da, erkidegoan dago oinarrituta eta Palestinako barruko lekualdatu eta errefuxiatuen eskubideak defendatu eta sustatu egiten ditu. Gure ikuspegia, xedeak, programak eta harremanak zehazteko orduan, nortasun palestinarra, nazioarteko zuzenbideko printzipioak eta, batez ere, giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea hartzen ditugu kontuan. Beraz, Palestinako herriaren giza eskubideak eta eskubide kolektiboak aldarrikatzea dugu helburu.

BADIL erakundeak hamar urte bete zituen 2008. urtean. Gure urteurrena ospatzeko, hiru urterako ekintza-plan berria kaleratu dugu, "Eskubideak abian jartzen", alegia. Aurreikuspenen arabera, 2008-2010eko programak energia eta borondate politiko berriak bultzatuko ditu, Palestinako barruko lekualdatuen, errefuxiatuen eta nahitaez lekualdatuak izateko arriskupean daudenen eskubideak eraginkortasun handiagoaz babesteko. Kanpaina independenteei eta Palestinako zein nazioarteko herri-oinarriek eta gizarte zibileko eragileek legearen arloan egindako ahaleginei esker, BADIL erakundearen lana babesteko ingurunea sortu zen, eta aurrekaririk gabeko eragin ikaragarria lortu zen 2008. urtean. 1948ko Nakbaren 60. urteurreneko ospakizun palestinarrak, esaterako, errefuxiatu palestinarren inguruko interesa piztu zuten munduan, eta Israelen garbiketa etnikoaren politika jarri zuten agerian. Palestinako gizarte zibilak Israelen aurkako Boikot, Inbertsio Galera eta Zigorretarako abian jarritako kanpaina (BDS) ikaragarri hazi eta sendotu egin zen. 2008ko azaroan, hain zuzen ere, NBEko Batzar Nagusiko presidentek berak sustatu zuen:

Orain dela hogeitik gora urte, guk, Nazio Batuetan, gizarte zibilaren adibidea jarraitu genuen, bertako urraketak amaitu zitzaizkan Hego Afrikari presio ez-bortitza egiteko zigorrek ezarri behar zirela erabaki genuenean. Gaur egun,

beharbada, guk, Nazio Batzuetan, gizarte zibileko belaunaldi berriaren adibidea jarraitu beharko genuke, boikoterako, inbertsio-galerarako eta zigorretarako antzeko kanpaina ez-bortitza eskatzen ari delako, Israeli presioa egiteko eta haren urraketei amaiera emateko.

Zoritxarrez, aurreko ezerk ez zituen eragotzi Israelek Gazan egindako azken eraso militarra, mendebaldearen konplizitatea eta milaka biktima palestinarrak (Batuen Erakundeko Batzar Nagusiko presidentea den Aita Miguel D'Escoto Brockmannen adierazpena, 57. osoko bilkura, agendako 16. puntuari buruzkoa, Palestinako gaia, Nazio Batuak, New York, 2008ko azaroaren 24an).

### **Zeintzuk dira Palestinako errefuxiatuek jasaten dituzten urraketa larrienak?**

Oso zaila da Palestinako herriaren eskubideak eta Palestinako barruko lekualdatuen zein errefuxiatuen eskubideak bereiztea, palestinar gehienak (biztanle guztien %75) errefuxiatuak eta/edo barruko lekualdatuak direlako. Gauza bera esan liteke giza eskubideen urraketei buruz. Edonola ere, errefuxiatu palestinarrak are zaugarriagoak zira errefuxiatuak edo barruko lekualdatuak ez diren beste palestinar batzuen aurrean.

Nolanahi ere, Israelek errefuxiatu palestinarren artean urratu dituen eskubide guztiak 194. ebazpenean (III) azaltzen dira (baina batik bat, itzultzeko, kalte-ordaina jasotzeko eta konpentsazioa hartzeko eskubidea), bai eta Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Konbentzioan eta errefuxiatuak, barruko lekualdatuak eta aberrigabeak helburu dituzten nazioarteko beste tresna nabari batzuetan ere. Errefuxiatuen eskubideak nazioarteko babesik ez dagoelako urratzen dira. Bestetik, Israelek errefuxiatu palestinarren eta errefuxiatuak ez diren beste palestinar batzuen giza eskubideak urratzen ditu erabat. Beraz, egoera latza da zentzu bikoitzean: errefuxiatu moduan eta palestinar moduan. Esate baterako, errefuxiatu palestinarrei sorterrira itzultzeko eskubidea eragotzi dieten arren, palestinar guztiek bezala zenbait egoera latza jasan behar dituzte: mugitzeko murriztapenak, harresiaren eraikuntza, tortura, bereizkeria instituzionalizatua...

### **Giza eskubideen zenbait urraketak eragin berezia dute emakumeen artean? Nola islatzen da generoaren gaia erakundeetan bertan?**

Errefuxiatu palestinarrak eta, batez ere, emakumeak oso biztanle zaugarriak dira, eta, sarritan, oso baldintza latzetan bizi dira, Palestina historikoan bertan (lerro berdeko "Israelen" bizi direnak kontuan hartuta) edo erbestean (herrialde

anfitrionietan bizi direnak). Emakume errefuxiatuek urraketa orokorrak jasaten dituzte errefuxiatu moduan (nazioarteko babesean eta laguntza humanitarioan hutsune handiak daude), eta, horrez gain, euren giza eskubideen eguneroko babesean dauden hutsuneei ere aurre egin behar diete: ez diete aitortzen nortasun-agiriak edukitzeko eta familia elkartzeko eskubidea.

Emakumeen aurkako bereizkeria munduko fenomeno da, eta, bertan, gizonen zein emakumeen berdintasun-faltaren eraginpean dauden emakume errefuxiatu palestinarrak sartzen dira. Testuinguru palestinarrean, bereizkeria horren arrazoiak ez dira sustrai soziokulturalak bakarrik, fenomeno horren atzean zenbait arrazoi daudelako: Israelen bereizkeria instituzionalizatuaren araubidea, okupazioa, polita zein legean aniztasuna eta herrialde anfitrionien nazioarteko araudiak ere bai.

Nolanahi ere, nabarmendu egin behar da zer zeregin garrantzitsua izan duten emakume palestinarrak, Al Nakbatik nortasun nazional palestinarra babesteko orduan. Bestetik, emakume palestinarren zeregin sozial eta kulturala ere aldatu egin da, Israelen okupazioaren ondorioz borroka nazionalean parte hartzean. Lehen Intifadatik, emakumeek bete-betean parte hartu dute manifestaldietan, Israelgo armadarekiko gatazketan eta produktuen boikotetan. Emakumeen inplikazio politikoa handitu egin da, gizon gutxiago daudelako eta okupazioaren eraginpean daudelako. Testuinguru horretan, Badilek emakumeen ekimenak eta auzo-partaidetza sustatzen ditu. Esate baterako, orain dela hiru urte Gazteen Prestakuntza eta Hezkuntzarako Proiektua jarri zuen abian Palestina historikoan eta erbestean zehar, eta, Badilen esanetan, parte-hartzaileen kopurua berbera da bertan (neskak eta mutilak).

### **Nolakoa da egoera errefuxiatuentzako kanpalekuetan? Zer estatus dute errefuxiatuek estatu arabiar anfitrionietan?**

#### **Estatu Arabiar Anfitrionietako Lege Estatusa (UNRWako eragiketa-eremuan bertan eta kanpoan)**

Palestinaren Tratamenduari buruzko Protokoloa ("Casablancako Protokoloa") eskualde-tresna da, eta palestinarren estatusa arautzen saiatu zen 1948an babesa bilatu zuten estatu arabiarretan. Protokoloa 1965ean estatuburu arabiarrek Casablancan egindako goi-bilera berezian onartu zen. Bertan eskatzen zenez, palestinarrak herrialde arabiar anfitrionietako nazionalak bezalako

tratamendua jaso behar zuten lanaren arloan, bizileku zuten estatuko lurraldetik irteteko eta itzultzeko eskubidean, estatu arabiarren arteko mugikortasun-askatasunean, bidaia-agirien jaulkipean eta berriztapenean eta bizitegi, lan zein mugikortasunerako askatasunean. Liga Arabiarreko estatu kide guztiek ez zuten Casablancako Protokoloa sinatu.

Liga Arabiarrak ezarritako estandarren betearazpena aldatu egiten da. Errefuxiatu palestinarrak nazionalak bezala tratatu behar dituzte honako arlo hauetan: lana, irteteko eta sartzeko eskubidea, bidaia-agiriak, bisak eta bizilekua. Hori horrela izanik ere, Egipton, Libian eta Golkoko estatuetan eta, batez ere, Kuwaiten, atzerritarrentzat hitzartutako antzeko babes-estandarrek ere badaude. Estatu arabiar anfitrioiengan, errefuxiatu palestinarren tratamendurako derrigorrean bete beharreko eskualde-estandar loteslerik ez dagoenez, herrialde bakoitzeko legeria nazionalaren arabera arautzen da euren lege-estatusa. Neurri batean edo bestean, herrialde arabiar guztietan, honako arlo hauetako murrizketak inposatzen dizkiete errefuxiatu-agirien titularrak diren palestinarrei: bizileku-eskubideak, mugitzeko askatasuna, lana, jabetza edukitzeko eskubidea eta gobernuko zerbitzuak eskuratzeko aukera. Horrez gain, sarritan palestinarren gaiak herrialde arabiar anfitrioiengan ministerio-dekretuen edo agindu administratiboen araupean daudenez, erraz ezeztatu daitezke inguruabar politiko aldagarrien ondorioz. Ohiko bizileku-herrialdetik irtetean zenbait eskubide dituen palestinarrari ez diote bermatzen eskubide horiek galduko ez dituenik.

Gainera, eskualde-estandarrik ez dagoenez, errefuxiatu palestinarren lege-estatusa eta oinarrizko giza eskubideak desberdinak dira herrialde anfitrioi batetik bestera. Aldi berean, herrialde arabiar anfitrioiak zenbait printzipio eta politika bateratu dituzte.

- Oro har, herrialde arabiarrek ez diete atzerritarrei erabateko bizileku-estatusa ematen (naturalizazioa edo behin betiko geratzeko baimena). Salbuespen bakarra Jordania da, 1948tik bere lurraldean bizi diren errefuxiatu palestinarrei dagokienez.
- Herrialde gehienek xedapen bereziak dituzte, arrazoi politikoengatik naturalizazioa debekatzeko.
- Hasiera batean, ez dago onartuta herrialde arabiar batean baino gehiagotan nazionalitatea edukitzea.

- Herrialde bateko emakume batekin ezkondu ere, senarrak eta seme-alaba ez-nazionalak ez dute naturalizaziorik edo bizileku-eskubide berezirik lortuko.

Palestinar gehienei (Jordaniakoei izan ezik) errefuxiatu-agiri bereziak egiten dizkiete, eta, herrialde gehienetan, horrek ez du esan nahi bizileku-estatusa segurua denik.

UNRWAn erregistratutako errefuxiatuek agentziak emandako zerbitzuak jasotzeko eskubidea dute: hezkuntza, osasun-atentzioa eta gizarte-zerbitzuak. Dena dela, UNRWAn erregistratuta ere, UNRWako eragiketa-eremuaren barruan herrialde arabiar anfitrioiengan bizi diren errefuxiatu palestinarrei ez diete lege-estatus babestua bermatzen.



## “FENSUAGRO – CUT” Erakundea: Erakundearen aurkezpena

**Aide Morenori egindako elkarrizketa. Kolonbiako FENSUAGRO erakundekoa da eta giza eskubideen idazkari nazionala.**

### **Nolakoa da Kolonbiako nekazarien egoera?**

Kolonbia oso egoera zailean bizi da aspaldidanik, baina batez ere, nekazaritza-eskualdeetan. Giza eskubideetako arduraduna naizenez, zuzenean ezagutu dut zer egoeratan bizi diren herrialdeko landa-inguruneke nekazariak. Esate baterako, Kolonbiako hegoaldean egon naiz, Putumayon, alegia, bertako nekazarien egoera nolakoa den jakin nahian. Estatuak bertan behera utzi ditu, nekazariak ezin txiroagoak dira, estatuak ez du nekazarien onurarako esportazio-politikarik egiten eta ez dute euren produktuak ateratzerik. Beraz, ez dago komunikazio-bide onik, ez dago osasunik, ez dago hezkuntzarik eta ez dago umeei hezkuntza-kalitate egokia eskaintzen dien eskolarik. Horrez gain, horrelako egoeretan bizi diren emakumeen eskubideak urratzen dituzte, egun osoa lur-zatietan, onibarretan lanean ematen dutelako, seme-alabak eskolara joan daitezten. Bestetik, gobernu honen epealdi osoan arazoa dugu 2001. urteaz gerostik, hau da, lekualdaketa. Nekazariak euren lur-zatiak, eskualdeak utzi behar izan dituzte, hirietara lekualdatuta etortzeko, eta oso-oso arazo larria da, hirietara heltzen direnean ere ez dutelako gobernuaren babesik jasotzen. Ikasketarik gabeko nekazariak dira, analfabetoak. Hori dela-eta, ez dute hirietan mugitzeko gaitasunik, ez dute ezagutzen eta, atentzio egokirik eskaintzen ez dietenez, eskean hasten dira kalean. Gobernuak ematen omen dizkien dirulaguntzak ere ez dira euren mesederako, irragarriak direlako, ez dute jateko beste, ez dute zerbitzuak ordaintzeko beste. Arazo handi-handia da, hirietara iristen diren nekazariak bizi duten giza drama, alegia. Edonola ere, gobernuak egin eta ematen duela dio, baina errealitatera joanez gero, ez da horrela gertatzen.

Eskualde horietan, emakume alargunak ere badaude, eta eskualdearen beste flagelo bat da, gure herrialdean matxinatuak, mugimendu armatua (FARC) jazartzeko politika ezarri dutelako. Horrela, bada, landan mugitzen den oro,

lan egin edo antolatzen den oro matxinatua da gobernuarentzat eta jazarri egiten dute. Beraz, gaur egun, estatua eskualdeetako nekazari kideak hiltzen ari da indar militarren bitartez. Gainera, badago astungarririk, borrokan hildako gerrillariak direla esaten dutelako.

### **Kasuren bat ezagutzen duzu?**

Jakina, kasu zehatzak ditugu. Esate baterako, Putumayon, Simón Corena, Feliciano eta Gentil Guayarán nekazariak erail zituzten; Sucren, ordea, Luis Miguel Gómez Portu; Metan, Genaro Potis; eta beste eskualde batzuetan, beste nekazari kide batzuk. Gerrillariak direla diote, eta, ikertzen hasten garenean, badakigu ezetz, euren lur-zatietan lanean ari ziren edo eskualdeko bide batetik zihoazen nekazariak direla. Armadarekin topo egiten dute, hil egiten ditu eta simulazioak egiten dituzte gerrillarekin borrokan ari direlakoan. Halakoetan, emazteek senarraren heriotzaren zama eraman behar dute, seme-alabak aurrera ateratzeko eta onibarrari eusteko, estatuaren ordainsaririk jaso gabe. Ez ditu inork kontuan hartzen.

Era berean, beste arazo larri bat ere antzeman dugu geure erakundearen, hau da, atxiloketak. Nekazariak hil egiten dituzte, baina horrez gain, etengabe jazartzen dituzte, nekazariak eskualdeetako matxinatuak babesten dituztela uste dutelako. Nekazariak ez dituzte bizitzaren, lanaren eta ekonomiaren kudeatzailtzat hartzen. Hori dela-eta, gizonak, emakumeak, gazteak eta umeak jazartzen dituzte, den-denak sartzen direlako. Emakumeak ere espetxeratu egiten dituzte. Euren eskualdean prozesuaren alde egin, aurrera joan eta antolatu nahi duten emakume liderrak seinalatuta daude eta, ondoren, espetxeratu egiten dituzte. Gizon liderren antzera, antolakuntzaz arduratzen direnez, seinalatu, espetxeratu edo erail egiten dituztelako.

Beraz, agerikoa da horren ondorioz zer gertatzen den familietan. Ama kartzelara doanean, familia eta etxea sustatzailerik, antolatzaile gabe geratzen dira, eta 9 edo 10 urtetik gorako neskatilek ikasketak utzi behar dituzte, ama egiten zituen lanak egiteko. Neba-arreba gehiago badago, landa-inguruneke familiak oso ugariak direlako. Neskatila horiek egoerari aurre egin beharko

diote eta neba-arrebak hazi behar dituzte. Nebarik badago, mutilek ikasketak utzi behar dituzte eta sostengua ekarri behar dute etxera, lur-zatietan lan egin behar dute... Giza drama ikaragarria da benetan. Kolonbian, ez dakit zenbat emakume dauden espetxeetan, baina ehunka daude. 3 urtetik beherako umeak badituzte, kartzelara eramaten dituzte eurekin. Espetxeetako osasun-atentzioa ez da hobea, utzikeria erabatekoa da umeentzat zein atxilotutako amentzat. Kolonbiako egoera zinez dramatiko da, inolako zalantzarik gabe.

### **Erakundeetan bertan, nolako tratua ematen dizuete emakume nekazarioi?**

Nire erakundeaz hitz egin dezagun. Berdintasunen lana garatzen dugu, hau da, ez dugu alde batetik emakumeen gaia lantzen eta gizonena bestetik. Elkarrekin lan egiten dugu. Nola ez, geuk ere emakumeentzako hitzaldiak antolatzen ditugu, emakumeen arazoei buruz hitz egiteko. Era berean, nazioarteko topaketak ere egiten ditugu, gure erakundeko politketan egon behar direla uste dugulako. Dena dela, oso lan mistoa da, oro har.

### **Nolako interesak daude, talde armatuek eta beste erakunde batzuek nekazariak euren lurretatik bota ditzaten?**

Kolonbiako paramilitarismoaren ondoren, transnazional eta multinazional handiak gure lurretan sartu dira, gobernuek asmatutako fenomeno da-eta. Eskualdeetara iritsi da, eta nekazariak alboratu, mehatxatu, torturatu, erail eta desagerrarazi egin ditu. Izan ere, euretako asko eta asko non dauden ere ez dakigu. Landetan sortutako izuaren ondorioz, jendeak eskualdeetatik alde egiten du, eta, jendea joan denean, lurjabe handiek eta estatuak lur horiek erabiltzen dituzte multinazional handien proiektuak garatzeko. Sucreko eskualde batean, lur horien desjabetza ikusi genuen. Nekazariak odol eta su artean ateratzen dituzte, lurjabe handiak sartu egiten dira eta, gaur egun, olio-palmondoaren lur-sail handiak dira nagusi. Era berean, gure ur-baliabideen arloan ere egin dute aurrera. Kolonbiako biodibertsitatea oso aberatsa da. Faunako eta florako espezie asko ditu. Izan ere, lore-ekoizle onena delakoan nago. Era berean, oso ur naturalak ditu, bai eta lurzoru ezin aberatsagoak ere.

AEBek ere azterketak egin dituzte, gure herrialdeko mapak egin dituzte. Azterketa horien ondorioz, gure arbasoen kultura lapurtzen ari dira. Estatubatuarrak nonahi ari dira hizkuntza kitxua aztertzeko, gure landareak ikertzen, gure jakintzak arakatzeko. Hain zuzen ere, oso oihan babesgabeak arakatzeko dituzte, landareak eta euren erabilera aztertzeko. Gure herrien

behinolako jakituria ikertu ondoren, prozesatu eta merkaturatu ditzaketen landareak patentatzen dituzte.

Esate baterako, badakigu "itxiokorra" izeneko landareari buruzko patentea dagoela. Oso lore ederra da, eta odolean azukrea dutenek erabili ohi dute. Gaur egun, ostera, ez dugu erabiltzerik, patentatu egin dutelako.

Hala ere, estatu honen bilaketa da helburu nagusia, honako hauen laguntzaz: multinazional guztiak, munduko bankua, MMA, politika ekonomikoak... Izan ere, gure lurraldeetan sartzen dira, eta bertan daukagun guztia arpilatzen dute.

Beste arazo larri bat ere badugu, bioerregaiak, alegia. Kolonbian, kanabera ereiten genuen, panela egiteko, eta leku guztietan zegoen. Panela gozokia da. Kolonbian, kanaberako azukrea ateratzen dugu, baina horrez gain, panela izeneko bloke gogor bezain gozoak irteten ziren. Gaur egun, ostera, ez dugu horretarako kanabera ereiten, bioerregaietarako baizik. Orain, gero eta aruntagoa da bioerregaien ekoizpenerako kanabera-sail handiak ikustea.

Nire eskualdean, patataren antzekoa den juka ere ereiten dugu, herrialdeko, tokian tokiko eta erkidegoko ekoizpenerako. Dena dela, orain ikerketa handiak egin dituzte, eta konturatu egin dira juka ere bioerregaien ekoizpenerako erabili daitekeela. Beraz, erkidegoek ereiten duten juka ez da kontsumorako edo eurentzat, esportatzeko eta bioerregaietarako lantzeko baizik.

Gobernuak elikagaiak aztertzeko dituzte, eta horrelako politikak ezartzen ditu herrialdean. Euren ustez, beraz, ez dugu kontsumorako erein behar, eurek bahi duten helbururako baizik, hau da, bioerregaietarako.

Multinazionalen bidez, transgenikoak aipatzen dituzte merkataritza askeko itunetan. Gaur egun, gu ez gara geure hazien jabeak. Babarrunak, esaterako, urte osoan gordetzen ziren, eta gainerakoak saldu egiten zen, familiaren sostenguan laguntzeko. Horrez gain, juka edo platanok saltzen zitzaizkion erkidegoari edo premia zuen auzokideari.

Orain ez dute hazirik biltegiratzerik, enpresei erosi behar dizkiete eta intsumo kimikoak jarri behar dizkiete, landarea azkarrago hazi dadin. Euren katea da, ez gurea. Ezin larriagoa da.

Eskualdeok behin eta berriro gaitzetsi ditugu hazi transgenikoak, nekazaritza garbiaren alde borrokatzen gara eta laborantza organikoak sustatzen ditugu.

Tailerrak egiten ditugu, nekazariak landa-ingurunea babestu dezaten, erkidegoek erabiltzen dituzten toki-haziak gorde ditzaten eta eguneroko ekintzetan kimikoekin zerikusia duen guztia desagertu dadin. Horrela, multinazionalak nori saldu ez badauka, bertan behera utzi beharko du.

### **Ezer esan ahal diguzu fumigazioei buruz?**

Handik edo hemendik, arazoak dira nagusi. Gobernuak eta AEBek plana jarri dute abian, legez kanpokoak omen diren laborantzak desagerrarazteko. Guretzat, landareen laborantzak dira: koka eta mitxoleta. Hain zuzen ere, koka sendabelarra da eta ahalik eta modu onenean erabiltzen da. Ez da landare kaltegarria, eta ez ditu planeta edo pertsonak suntsitzen. Koka modu txarrean erabiltzen dutenak narkotrafikatzaile handiak eta landarea maneiatu duten ekonomia-jabe handiak dira. Izan ere, ezaugarriak atera dizkiote, gizakiei kalte egiteko. Kolonbiarrok, nekazariok ez gara errudunak, nahiz eta landatu beste irtenbiderik ez duen, ez dugulako prozesatzen, ez diogulako irina ateratzen.

Gainera, mendi-inguruneko lur-zati urrunetan, nekazariak koka-landarea erein dute, baina euren produktuak ere bai, ez dutelako beste zereginik. Edonola ere, hegazkinek aire-hedapena egiten dute fumigatzean, hau da, hektarea bat fumigatzeko, inguruko 7 hektarea kutsatzen dituzte. Oso-osoa larrria da, nekazariak euren babarrunak, platanoak eta artoa dituztelako landatuta eta hil egiten dituztelako. Gainera, ura, flora eta fauna ere kutsatu egiten dituztelako. Den-dena eraldatu egiten da. "Glifosatoa" izeneko fungizidak eragin handia du giza bizitzan. Nekazariei agerraldiak aurkitu dizkiegu larruazalean, euren etxeetan kimiko hori jausi zaienean. Ez dago inolako politikarik, fumigazioak etxebizitzetan edo emakume haurdun, ume, adinekoetan... erori ez daitezten. Hegazkina heldu egiten da, fumigatu egiten du, kaltea eragiten du eta joan egiten da. Hori dela-eta, eskualdean gero eta baliabide gutxiago ditugu, gure ingurumena hondatuta dago, gero eta nekazari gutxiago daude eta elikagairik gabe geratzen ari gara.

### **Besterik erantsi nahi?**

Oso garrantzitsua da gure herrialdea sakon ezagutzea, komunikabideak ere gure flagelo larrienetakoa delako. Komunikabideek ez dute herrialdearen benetako egoeraren berri eman nahi. Komunikabideek gobernuak nahi duena diote, esan beharrekoa. Beraz, inork ez daki benetan gure herrialdean zer gertatzen den.

Esate baterako, presidentearen politika berekoak diren 30 kongresista baino gehiago atxilotu dituzte parapolitikagatik eta narkotrafikoagatik. Egitate hori ez da oso ezaguna eta ez da eskandalurik sortu. Nolanahi ere, legeak egin dituzte, gaur egun dugun gobernuak edukitzeko politika landu dute eta ez da ezer jazotzen.

Hori dela-eta, mobilizazioak, mitinak egiten ditugu, Kongresura joaten gara eta gobernuari oihu egiten diogu legez kanpoko gobernuak dela, narkotrafikoaren zein gerra zikinaren ondorioz sortu dela eta eskuak odolez lohituta dituztela. Gure herrialdea gobernatzeko moduko gobernuak ez dela esaten diogunez, gerrillariak, matxinatuak garela esaten dute. Altxatu egiten garenez, protesta egiten dugunez, jazarri egiten gaituzte. Beraz, jendeak jakin egin behar du gure herrialdean benetan zer gertatzen den. Guk geuk, erakundeok, ordea, ez dugu horretarako ahotsik, ezin gara irten ez irratian ez telebistan. Zer gertatzen den dakigunok gara, zuzen-zuzenean ezagutzen ditugulako AEBek eta gure gobernuak diseinatutako politikak. Izan ere, herrialdeko nekazari txikiak, gizarte-erakundeak, oposizioa eta sindikatuak zapaltzea dute helburu nagusi.

### **FENSUAGRO-CUT Erakundea: Erakundearen aurkezpena**

FENSUAGRO bigarren mailako nekazaritza-erakunde gremiala, sindikala, klasista eta pluralista da, eta honako hauexek ditu kide: departamentuetako nekazari txikien elkarteak eta sindikatuak, lurrik gabeko nekazarien erakundeak, jorنالariak eta nekazaritza-industriako langileak. Izan ere, Kolonbiako nekazaritzaren eraldaketa demokratikoaren aldeko borrokari aurre egitea dute helburu. Kolonbiak 32 departamentu dituela kontuan hartuta, 22tan du agerpena.

Gaur egun, sindikatuak eta nekazarien elkarteak daude afiliatuta FENSUAGRO. Erakundeak, hain zuzen ere, 80.000 afiliatu ditu, eta, eurretatik, %50 lurra eskuratu nahi duten nekazariak dira; %30, jabe txikia; eta %20, apartzeroak. Zenbatespenen arabera, aipatutako biztanle horien %43 gutxienez emakumeak dira.

FENSUAGROren jatorria Nekazaritza eta Abeltzaintzako Federazio Nazional Sindikalean (FENSA) dago. FENSA 1976ko abenduaren 6an sortu zen, Kolonbiako

langile eta nekazarien borrokek bat egin zutenean. Horrez gain, sortu zenetik, 80ko hamarkadan CUT bihurtu zen Kolonbiako Langileen Konfederazio Sindikal sortu berrian (CSTCn) afiliatu zen. Biek bat egin zutenean, FENSUAGRO - CUT Nekazaritza eta Abeltzaintzako Federazio Nazional Sindikal Unitarioa sortu zen.

Hasiera-hasieratik, FENSUAGROk (orduan, FENSA izenpean) oso lan handia egin du, Kolonbiako nekazarien mugimendua bateratzeko eta koordinatzeko. Hori dela-eta, tokian tokiko sindikatu askok bat egin zuten, eta euretako asko udal eta departamentuetako gizarte-mugimendu bihurtu ziren.

Bat egitean, FENSUAGROk oinarritzko lana sendotu du nekazarien erakundeetan:

- Lurrik gabe utzi dituzten nekazari txiki eta ertainek luraren alde garatutako borroka babestu ditu.
- Bete-betean sustatu eta parte hartu du nekazaritzaren eraldaketaren alde borrokatzen diren nekazarien mobilizazioetan. Era berean, barruko gatazka sozial zein armaturako irtenbide politikoaren esparruan bakearen alde lan egiten duten herri-sektoreen alboan ere egon da.

Nolanahi ere, bere hazkuntza eta bilakaera honako faktore hauen eraginpean egon dira: indarkeria politikoa eta euren buruzagien jazarpenak eta hilketak, lurjabeen eta betiko botere politikoaren zerbitzura dauden sare paramilitar eta estatuko agenteen esku. Nekazarien eta eurei laguntzeko mugimenduen aurkako indarkeriaren ondorioz, hainbat eta hainbat nekazari derrigorrean lekualdatu behar izan dira euren lurrak bertan behera utzita.

## FENSUAGROren egitura

Udal edo parrokiako administrazio-ataletan eta korrejimenduetan, jabeak eta lur-hautagaiak diren 10 familia nekazari (gutxienez) osatutako batzordeak daude. Horrelako zenbait batzordek sekzioak osatzen dituzte udalerrian; nekazaritzako langileen sindikatuak, eskualdean edo departamentuan. Sindikatuak sei hilean behin batzartzen dira; eta departamentuetako zuzendaritza-batzordeak, hilean behin edo ezohikotasunez, beharrezkoa denean.

Batzar horietan, afiliatuen kopuruaren arabera, FENSUAGROko Zuzendaritza Batzorde Nazionalerako delegatuak aukeratzen dituzte. Batzorde nazional

hori 6 hilean behin batzartzen da, eta Batzorde Beterazlearen zein oinarrien txostenak aurkezten dituzte, politikak zein lan-planak egokitzeko eta egoeraren balioespenak egiteko.

FENSUAGROk Biltzar Nazionala egiten du hiru urtean behin, eta, orduan, Batzorde Beterazleko ordezkariak aukeratzen dituzte. 11 batzordekide dira, eta arlokako jarduez arduratzen dira honelako idazkaritzen bitartez: Antolakuntza, Hezkuntza, Gazteria, Ingurumena eta Kolonizazio Guneen Iraunkortasuna, Emakume Nekazariak eta Umeak, Ikerketa eta Kultura, Elkartasuna eta Giza Eskubideak, Komunikazioak, Nekazaritzako Industria, Nekazaritzako Gaiak, Nekazarien Ekonomia eta Nazioarteko Harremanak.

Bere kontzepzio eta lerrokadura politikoaren barruan, FENSUAGROk era guztietako joerak onartu eta errespetatu egiten ditu, betiere erabateko nekazaritza-erlaldaketa demokratikoaren aldekoak badira eta Kolonbiako nekazarien egoera sozial eta ekonomikoa hobetu nahi badute. Horrez gain, jarrera horiek gizarte eta politika eraldatzeko ditugun asmo eta idealekin bat etorri behar dira, benetan demokratikoa, bidezkoa eta berdintasunezkoa den gizarterantz abiatzeko.

## Itunak

Alde horretatik, FENSUAGROk nortasun-harremanak garatu eta sendotu egin ditu hiri-erakundeekin, indigenekin eta herri-mugimenduko zenbait gizarte-mugimendurekin. Hasiera-hasieratik, nekazari, langile eta herritarren mugimenduen uztarketaren alde egon da.

Honako prozesu hauetan egon da, hain zuzen ere:

- CONAIC (Indigenen eta Nekazarien Koordinakunde Nazionala).
- CNC (Nekazarien Kontseilu Nazionala).
- CNI (Kolonbiako Nekazari Beltz eta Indigenen Kontseilu Nazionala).
- CONAP (Nekazaritzako Langile, Behargin eta Herritarren Koordinakunde Nazionala),

Azken aspaldian, koalizio demokratiko handiaren eraketan parte hartu dute.



Nazioartean, honako hauetako filialak dira: Munduko Federazio Sindikala (FSM); Nekazaritza, Baso eta Lur-sailetako Langileen Sindikatuen Nazioarteko Batasuna (UISTABP) eta NEKAZARIEN BIDEA. Era berean, senidetasun eta elkartasun harremanak ditu landa-langileen, giza eskubideen... erakundeekin, beti-beti proiektio klasista kontuan hartuta eta Amerika Latinoan herri-sektoreen aldeko borroka-nortasuna eratzeko ikuspegi politikoean.

FENSUAGROk elikaduraren subiranotasunaren eta nekazarien ekonomiaren politika garatzen du, lurraldearen aldeko nekazarien herri-erresistentzia moduan. Gainera, nekazaritza-erregaien eta nekazaritza industrializatuaren politika estatalaren aurka dago, nahiz eta landa-garapenerako estatutuaren babesa eduki.

### Giza Eskubideen arloko lana

FENSUAGROk Elkartasun eta Giza Eskubideen Idazkaritzaren bitartez lan egiten du giza eskubideen arloan. Besteak beste, estatuak eta talde paramilitarrek nekazarien giza eskubideen eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren aurka garatutako erasoak eta urraketak salatzea du helburu nagusi.

Hona hemen Elkartasun eta Giza Eskubideen Idazkaritzaren eginkizunak:

- Zabalkundea. Horretarako, salaketa-politika garatzen du nazio-mailan zein nazioartean, Bizitza, Justizia eta Askatasunaren aldeko Nazio eta Nazioarteko Kanpainaren bidez. Horrela, FENSUAGROk eta nekazarien mugimendu orokorrak jasandako jazarpen, indarkeria eta hilketen berri eman dezake.
- Salaketa publikoak, alerta goiztiarrak eta premiazko ekintzak egitea giza eskubideen aldeko nazioko eta nazioarteko erakunde eta estatuko erakundeentzat, erakunde filialen adierazpen eta jakinarazpenetan oinarrituta.
- Estatuko terrorismoaren indarkeriapean dauden eskualdeei laguntzea. Horretarako, foroak eta tailerrak antolatzen ditu, giza eskubideen arloko prestakuntza-prozesua sendotzeko. Era berean, bisitaldi humanitarioak ere egiten ditu.
- Álvaro Uribe presidentearen gobernuko segurtasun demokratikorako

politikan oinarrituta, estatuak judizioz kanpo egindako banan-banako eta taldekako atxiloteta etengabeak salatzea. Horretarako, preso politikoen askatasunaren aldeko kanpaina egin du nazio-mailan zein nazioartean.

Elkartasun eta Giza Eskubideen Idazkaritzaren jarduketa-lerro horiek guztiak garatzeko orduan, beti-beti itunak egiten dira nazioko eta nazioarteko antzeko beste erakunde batzuekin, giza eskubideen urraketan aurkako lana bateratu izan dadin. Horrela, idazkaritzak giza eskubideen aldeko zenbait eremutan parte hartzen du, eta Estatuko Krimenen Biktimen Mugimendua Bultzatzeko Lantaldeko kidea da. Apurka-apurka, gainera, FENSUAGROko kideak diren filialak ere engaiatzen ditu.

### Salaketak eta erronkak

FENSUAGROren salaketak eta erronkak nekazarien lekualdaketa eta horren arrazoen ingurukoa da:

- Paramilitarren eta estatuko segurtasun-indarren bortizkeria.
- Nekazarien mesederako gizarte-politkarik ez egotea.
- Landaren mesedetan, nekazaritza garatzeko politikarik ez egotea erkidego zehatzentzat eta multinazionalen onurarako proiektuak egotea.
- Bide-azpiegituraren premia.
- Justizia eta Bakeari buruzko Legea eta Kalte Ordainetarako Batzorde Nazionala gaitzestea, ez delako batere lagungarria izan egia jakiteko eta biktimei kalte-ordainak emateko.

## AFAPREDESA (Sahara)

### 1. GATAZKA

#### 1.1. Lurraldearen deskolonizazioa

Mendebaldeko Sahara deskolonizatu gabe dauden azken lurraldeetakoa da. Orduko metropoliak, Espainiak, txarto kudeatutako deskolonizazio-prozesua eten egin zenez, gatazka bortitza sortu zen Marokoren eta Saharako herriaren artean, eta, bake-saioak egin badira ere, hogeita hamar urtetik gorako iraupena du.

Gatazka biziagotu zuen sugarra 1975ean gertatu zen. Urte horretako urrian, Nazio Batuetako Nazioarteko Justizia Auzitegiak irizpena eman zuen, Saharako herriaren autodeterminazio-eskubidea berresteko. Zenbait egunen ostean, Hassan II.a Marokoko erregeak, presio-neurri moduan, 300.000tik gora zibil eta soldaduri dei egin zien (Marokoren esanetan, "armarik gabeko zibilak ziren, eta Korana zen euren arma bakarra"), Mendebaldeko Saharan nazioartean onetsitako muga gainditu zuen ibilaldian parte hartzeko. "Ibilaldi berdeak" (sahararentzat, "Ibilaldi beltza") gaur egunera arte dirauen Saharako lurraldearen inbasioari eman zioten hasiera.

1975eko azaroaren 14an, Espainiako, Marokoko eta Mauritaniako gobernuek Madrilera hitzarmenak sinatu zituzten, eta, euren bidez, potentzia kolonizatzaileak Mauritaniako eta Marokoko gobernuei aldi baterako laga zien Saharako lurraldeko administrazioa eta ez subiranotasuna. 1976ko otsailean, Espainiak lurraldea utzi zuen, eta, horren ostean, Fronte Polisarioak Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa (SEAD) aldarrikatu zuen. Hartara, Sahara Maroko eta Mauritaniatik askatzeko gerra hasi zen.

1979an, Mauritaniako gobernuak, garaituta, bake-hitzarmena sinatu zuen Fronte POLISARIOAREKIN, lurraldearen inguruan zituen asmoei uko egiteko. Gaztaka era baketsuan konpontzeko ahaleginek porrot egin ondoren, 1991.

urtean Marokoren eta Fronte POLISARIOAREN arteko su-etena sinatu zen, Nazio Batuen babespean. Bertan adierazitakoaren arabera, 1992an Mendebaldeko Sahararen autodeterminaziorako erreferenduma egin behar zela ezarri zen.

Erreferenduma behin baino gehiagotan atzeratu eta oztopo ugari jarri ondoren, Mendebaldeko Saharako lurraldearen zati handiena Marokoko armadaren okupaziopean dago gaur egun, Nazio Batuek lurraldearen gaineko subiranotasun marokoa onartzen ez badute ere. "Lurralde liberatuak" SEADek administratzen ditu, eta hegoaldeko probintziak dira.

#### 1.2. Okupazioa eta Exodoa

Okupazioa gertatu zenetik, Marokoko segurtasun-indarrak (Errege-jendarmeak, Asaltorako hiri-guardiak eta armada) ez dira Saharako lurraldetik joan, eta politika zapaltzailea ezarri dute Saharako biztanle zibilen artean, ez dituztelako errespetatzen ez 1949ko Genevako hitzarmenak, ez giza eskubideen nazioarteko beste tresna batzuk, nahiz eta Marokoko estatuak berretsi egin dituen.

Indarkeria dela-eta, Saharako biztanle gehienek basamortuaren barruko alderantz ihes egin zuten. Askok Aljeriarekiko muga zeharkatu zuten, eta herrialde horrek bere lurraldeko ekialdean zegoen eremua eskaini zien, Tindoufeko Hamada, alegia, bertan finkatzeko eta Marokoren jazarpenetik babesteko.

Horrela, munduko leku babesgabeenetakoan, errefuxiatu sahararren kanpalekuak sortu ziren Tindoufen. Betidanik aldi baterako kokalekuak zirela adierazi arren, euren lurraldera itzuli nahi duten milaka sahararrek 30 urte baino gehiago daramatzate bertan bizitzen, oso baldintza txar eta latzetan, nazioarteko laguntza humanitarioaren eraginpean.

Ihes egiterik eduki ez zutenak okupazio militar marokoa pean bizi behar izan ziren derrigorrean, bertako estatuak pertsona eta herri moduan dituzten eskubide oinarrikoenak ukatu eta baztertu egiten dituen arren.

### 1.3. Erreferenduna

Nazio Batuek ebazpen ugari hartu dituzte Saharako autodeterminazioaren alde. Gaur egun, Marokoko gobernuak guzti-guztiak geroratu edo gaitzetsi egin ditu, eta nazioarteak ez du ezertxo ere egin.

Erreferenduma egiteko oztopo nagusia hauteskunde-errolda da, etengabeko desadostasunak sortzen dituelako Maroko gobernuaren eta Fronte POLISARIOAREN artean. Hartara, 1991n su-etenarekin batera arrakastaz hasitako bake-prozesua geldigeldi dago hogei urteren ondoren, gutxi gorabehera.

80ko hamarkadan prozesua oztopatzen duen urrats lotsagarria eman zen, Marokoko legalitate zalantzarik gabeko babes-harresia eraiki zuelako 2.000tik gora kilometroan zehar. Harresiak, hain zuzen ere, Mendebaldeko Saharako lurraldea banatzen du, hau da, Fronte POLISARIOAREN kontrolpeko "lurralde liberatuak" lurralde okupatuetatik bereizten ditu. Harresi horren bestaldean, militar marokoar ugari daude, eta gaur egun ere, zutik dago.

Marokoren eta Fronte POLISARIOAREN arteko zenbait hurbilketa-saiok eta bake-planek porrot egin ondoren, badirudi indarkeriaren amaierarako eta Mendebaldeko Saharako independentziarako bidea geldituta, boikoteatuta dagoela eta nazioarteak inolako jaramonik egiten ez diola. Bien bitartean, sahararren belaunaldi osoak Tindoufen jaio eta hil egiten dira, euren lurraldea ere ezagutu gabe.

### 1.4. Herrien erabaki askea

Herrien erabaki askerako eskubidea nazioarteko zuzenbideko gai korapilotsuenetakoa da: eztabaidagai nagusia ez ziren ezaugarriak izan, deskolonizazioaren testuinguru zorrotzetik kanpoko ezargarritasuna baizik: NBEko doktrinaren arabera, testuinguru zehatz horretan baino ez dago ezartzerik.

Nolanahi ere, Mendebaldeko Sahara menpetasun kolonialaren eraginpean dagoen herriaren ohiko ereduarekin, edozein zalantzatik kanpo geratzen da: Saharako herriak autodeterminaziorako eskubidea dauka. Beste gatazka batzuetan zalantzak egon daitezke, baina Saharako gatazkan ez, ordea, Nazio Batuek ezarritako premisen arabera deskolonizazio-prozesua delako.

Eskubide hori errespetatzea pertsonen oinarrizko gainerako eskubideak erabiltzeko aurretiazko baldintza denez, erabaki askerako eskubidea oinarrizko giza eskubidea da kasu honetan. Kolonialismo moduan adierazitako eskubide-urraketa nazioarteko krimena da, Nazio Batuetako Batzarraren 1514. ebazpenean adierazten den bezala.

## 2. AFAPREDESA:

Saharako Preso eta Desagertuen Senideen Elkartea (AFAPREDESA) sahararren eskubideen errespetuaren alde borrokatzen diren erakunde sahararretakoa da. 1989. urteaz geroztik, testuinguru errepresiboan, AFAPREDESAK nazioartean salatzen ditu Marokoko estatuak sahararren giza eskubideen arloan garatutako urraketak eta abusuak.

**Mohamed Labeidi egindako elkarrizketa. Saharako Preso eta Desagertuen Senideen Elkarteko Nazioarteko Saileko (ASVDHko) arduraduna.**

**Zer eskubide urratzen ari dira lurralde okupatuetan eta Saharako kanpalekuetan?**

Lehenengo eta behin, gatazka lekurtu beharra dago. Kolonizazioa da, lurraldearen okupazio militarra, alegia. Gatazkaren hasieratik, Marokok nazioarteko zuzenbidea urratu du modu argi bezain larrian, eta, horrez gain, berea ez zen herrialdea inbaditu zuen. Ondoren, herrialde moduan eratu zen, eta Mendebaldeko Saharako biztanleen eskubideak urratu zituen.

Hasiera-hasieratik, Marokok nazioarteari esan zion Ibilaldi Berdea baketsua izan zela eta bere helburua hegoaldeko jabetzak (lurrak) "berreskuratzea" zela. Landan bertan, ordea, ibilaldi beltza bizi izan dute. Maroko bertako armadarekin, blindatuekin eta hegazkin frantsesekin sartu zen.

Nazioarteko urraketak oso-oso larriak izan direnez, genozidiotzat hartu daitezke.

Bonbardaketan, Nepala eta Hauts Zuria erabili zituztenez, hildakoen balantzea hiru milatik gorako biktimarena izan zen, larregi 1976an Saharako herrian 700.000 biztanle baino ez zeudela kontuan hartuta. Nazioartean debekatutako armak erabili zituzten, eta armadak Saharako nomaden kanpalekuak suntsitu zituen.

Hori guztiori erregistratuta daukagu, nahiz eta Marokoko erregimenak GKE moduan proskribatu landa-lana egiteko orduan. Laguntzaileei esker, badakigu non dauden 6 hilobi bateratu, gutxienez. Pertsona horiek bizirik ehortzi dituzte, eta, horretarako, historiako taktika errepresibo guztiak erabili dituzte. Esate baterako, Guatemalako eta Hondurasko taktika errepresibo berberak izango lirateke.

Era berean, pertsonen aurkako minak ere erabiltzen dituztela nabarmendu beharra dago. Gaur egun, Marokok ez du minon erabileraren aurkako nazioarteko ituna sinatu, ekoitzi eta erabili egiten dituelako. Kanbodiaren ostean, munduan Mendebaldeko Sahara da horrelako mina gehien dituenena. Pertsonen aurkako minen arloan lan egiten duen GKE norvegiar batek egindako ikerketaren arabera, 5 milioi mina baino gehiago daude. Ondorioak agerikoak bezain larriak dira: pertsonen heriotza, gorputz-adarren mozketak...

Txarrena Lotsaren Harresia da. 2.700 kilometrotan zehar, hain zuzen ere, alanbreak eta harresiak dira nagusi, eta 170.000tik gora soldaduk zaintzen dute, lurra eta hautsa besterik ez bada ere.

Lurraldea okupatzean eta legez kanpo atxikitzean, Marokok nazioarteko zuzenbidea urratu du, eta, horrez gain, Saharako herriak nazio moduan hartutako onespina errespetatu ez duenez, ez ditu NBEko Segurutasun Kontseiluaren eta Hagako Nazioarteko Auzitegiaren ebazpenak bete.

Behin eta berriro ukatu du nazioarteko zuzenbide humanitarioa: atxiloketa arbitrarioak, desagerpenak eta errepresio etengabea. Kasu larriena duela zenbait aste gertatu zen 19 urteko neska batekin. Bahitu, bortxatu eta torturatu egin zuten polizia-komisarian. Bortxaketa salatzeke ausardia izan duten emakume bakarretakoa da. Poliziak iraina taktika moduan erabiltzen duenez, beti-beti bortxaketa sexuala erabiltzen dute neska-mutilen artean.

Saharako gizartearen ezaugarri bereizgarriak kontuan hartuta, oso zaila da egitate hori salatzea. Orain dela gutxi, Europako Parlamentuko PEC Batzordeak lurralde okupatuei buruzko txosten europarra argitaratu du. Txostenean argi eta garbi adierazten da Marokok giza eskubideak eta eskubide sozial, kultural eta ekonomikoak urratzen dituela.

**Saharako emakumeek zapalkuntza handiagoa jasan behar dute lurralde okupatuetan, emakumeak izateagatik?**

Ez dut gai honi buruz genero-ikuspegitik hitz egin nahi, emakumeak gutxietsi eta ahulak direla esango nukeelako. Izan ere, Saharako emakumeek 30 urte daramatzate borrokan, esparru politikoan zein militarrean. Lurralde okupatuetako manifestaldietan, mutilak era arruntean jantzen dira, baina Saharako neskek, ez, ordea, jantzi bereizgarria daramatelako soinean, aldarrikapen politiko moduan. Hori dela-eta, oso erraza da emakume sahararrak identifikatzea eta jazartzea, manifestaldi bakoitzaren ostean jazarpen poliziala hasten delako. Saharako emakumeek Saharako herriaren sakrifizioetan parte hartu dute, eta, gizonek bezala, baldintza latzei aurre egin behar izan diete. Beraz, ez da emakumeen kontua bakarrik. Hori 1976. urteaz geroztik egon diren 1.526 desagertuen artean egiaztatu dezakegu. 1976ko bonbardaketetan, emakumeak eta umeak aurkitu dituzte. Oro har, Marokok ez du emakume eta gizonen artean errepresioa bereizten. Palestinan, intifada mutilez beteta dago beti, baina gurean ez da halakorik gertatzen, hasiera-hasieratik poliziari aurka egiten zioten neska ugari parte hartu dutelako manifestaldietan.

Gure emakume ekintzaile asko gure elkarte askotako buruzagiak dira: **CODESA - Saharako Giza Eskubideen Defentsarako Lantaldea eta ASVDH - Marokoko Estatuak Giza Eskubideen arloan garatutako Urraketa Larrietako Biktimen Elkarte Sahararra**. Bi erakunde horietako presidentek, hain zuzen ere, emakumeak dira. Beraz, nire ustez, egoera honetan berez erortzen da generoaren zeregina.

### **Nola sortu eta antolatu zen AFAPREDESA?**

AFAPREDESA Saharako desagertuen senideentzako erantzun sozial eta Saharako herriko zein Armada Polisarioko ordezkari politiko moduan sortu zen, eta, batez ere, gatazka militarren esparruan eta arlo diplomatikoan lan egiten du.

Nahitaezko desagerpenen eta giza eskubideen gaia bigarren mailakoa izan da, baina ez estrategia politikorik egon ez delako, jenderik egon ez delako baizik.

Kontuan hartu behar da Argentinan, Guatemalan, Txilen eta Kolonbian nahitaezko desagerpenak eta giza eskubideen urraketa Pinocheten prozesuaren ondoren hartu direla nazioarteko ardaztat.

Oro har, desagertuen senideak gara. Nire kasuan, ahizpa dago desagertuta.



Den-dena 1989ko abuztuan hasi zen, Amerika Latinoko erakundeekin eta, batez ere, CDFArekin harremanetan egon ondoren, gazte-talde bat oso garrantzitsua zela konturatu ginelako. Desagertuen arloan hasi ginen lan egiten, eta, ostean, lan-eremua zabaldu genuen. Jatorrian, senideek eurek sustatu dituzte salaketak, oso-oso kasu larriak daudelako. 30 urteko belaunaldi batek ez daki ezer bere gurasoei buruz, eta, oraindik ere, zenbait emakumek ez dute itxaropenik galdu 1976. urtetik, Saharako lege eta erlijioaren arabera desagertuenetik 6 hilabete igarotzen direnean dibortziatzeko eskubidea eta beste batekin ezkontzeko eskubidea dituztelako.

Emakumeek ez dute halakorik egin nahi, itxaropena galdu ez dutelako eta Saharako auzia bete-betean babesten dutelako.

Nabarmendu egin behar da batzuetan emakumeok gazte-gazteak direla eta euren senarrak ezkondu osteko egunean desagertu direla.

Gaur egun, euren bila dabilta oraindik. Hori dela-eta, senideen estuasuna ikaragarria da.

Senideek Saharako gizarteari esaten diote Marokoko gobernuak egitateak argitu behar dituela. Era berean, giza eskubideen urraketa larrien berri ere ematen du, Marokoren okupazio militarren nabaritasuna uzteko. Azken 14 urteotako taldekide bat bera ere ez da jurista. Biktimak izateagatik eta nahitaezko desagertuak edukitzeagatik, hazi egin gara eta beste erakunde batzuetatik ikasi dugu, baina batez ere, Amerika Latinoan eta Espainian, giza eskubideen aldekoak dira-eta. Hasiera-hasieratik, egitura eta aholkularitza juridikoaren bidez lagundu digute.

### **Kanpalekuetan zaudete?**

ASVDHko egoitza nagusia kanpalekuetan dago. Zoritxarrez, ezin dugu lurralde okupatuetan lan egin, eta bulego bat dugu hemen, Bilboko nazioarteko sail batean. Lehen, Madrilen genuen PTMri esker, babes-hitzarmenen bitartez.

Giza eskubideen arloko lana honako hau da funtsean: salaketak, informazio-bilketa eta giza eskubideen nazioarteko erakunde eta instituzioekiko harremanak, kanpalekuetatik ezer gutxi egin dezakegulako. Orain arte, eskura genituen baliabideei atera diegu etekina. Internet eta Chiapasen gertatutakoa bezalako beste borroka batzuk oso lagungarriak izan dira guretzat. Guretzat Internet da

ikerketarako baliabide erraz eta merkeena, baina batez ere kanpalekuetan eta lurralde okupatuetan, mezuak enkriptatu egin daitezkeelako eta informazioak eraginkortasunez nahiz erraztasunez eguneratu daitezkeelako.

Gure lana bizi-bizia da, informazioa hurrengo egunean bidaltzen diegulako erakundeiei.

### **Zeintzuk dira gizarte zibileko beste lan-erakunde batzuekin dituzuen itun nagusiak?**

Ia-ia, Saharako herriaren adiskideen elkarte guztiekin lan egiten dugu. Lan handia egiten dute, karabanen eta umeen arloan lan egiten dutelako. Egia esan, ezer gutxi egin da presio politikoari buruz.

Arma onena giza eskubideena da. Giza Eskubideen Defentsa eta Prestakuntzarako Elkarten Federazioarekin lan egiten dugu. PTM muina da, modu profesionalagoan diharduelako Espainiako gobernu eta estatuko ikerkuntzaren arloan.

Nazioartean, hauexekin lan egiten dugu: Nazioarteko Amnistia, Human Rights Watch, OMCT (Torturaren aurkako Munduko Erakundea), giza eskubideen arloan diharduen erakunde holandar bat eta Giza Eskubideen Nazioarteko Federazioa. Horrez gain, beste zutabe batekin ere lan egiten dugu: Amerika Latinoa. Elkarren artean, Kontinente arteko Federazioen erakunde holandarra sortu dugu, nahitaezko desagertuenak hitzarmenetan kontuan hartzeko eta sinatzeko.

Ezinbestean egin beharreko lana da, estatu askok ez dutelako oraindik berretsi.

Hori horrela izanik ere, Amerika Latinoaren bitartez, nahitaezko desagertuenen aurkako sare afrikarrari buruz hitz egitea lortu dugu.

Filipinarrek Asiako sarea jarri dute abian, kontinente arteko sarea sortu ahal izateko. Giza eskubideen arloko lana egin dugu NBEko kontseilu-mailan, eta Nazio Batuetako Batzar Nagusiak onartu egin zuen. Era berean, gogor lan egiten ari gara, herrialde guztiek hitzarmena sinatu dezaten eta nahitaezko desagertuenak behingoagatik amaitu daitezten. Arlo hori, hain zuzen ere, tokian-tokian lantzen dugu Mendebaldeko Saharan. Bestetik, kanpalekuetan, tailerrak eta mintegiak egiten ditugu, giza eskubideak sustatzeko. Zorionez, kanpalekuetan ez dugu emakumeen eta umeen eskubideen aurkako errepresiorik. Dena dela, giza

eskubideak edonon urratu daitezke.

Giza eskubideen defendatzaileok eskubideak sustatu behar ditugu eta Saharako biztanleek euren eskubideak zeintzuk diren jakitea lortu behar dugu. Hori dela-eta, ez dugu atxiloketa arbitrarioak, torturak edo bahiketarik onartuko Saharako kanpalekuan.

1988an, Saharako Segurtasun Zuzendaritzak zenbait akats egin zituen, baina zuzendu egin zituen.

Gaur egun, gizarte prestatzen dugu, bere eskubideak zeintzuk diren jakin dezan eta defendatu egin ditzan.

Lurraldeetan, giza eskubideen urraketa zaindu eta erregistratu egiten ditugu. Era berean, giza eskubideen elkarrekin eta taldeak sortu eta bultzatu egiten ditugu. Hala ere, ez dute legez lan egiten, Marokoko estatuaren onespenez ez dutelako.

Gure iritziz, erakunde berriak antolatzen jakin behar du, eta lantaldeak sortu behar ditu. Oraingoan, abian dauden oso ondo lan egiten ari dira. Dena dela, oraindik badute zer eginik; esate baterako, Marokoko polizia eta Marokoko auzitegiei aurre egin ahal izatea eta, batez ere, gizarte-aldaketa herritarra zuzentzea. Espainian "intifada" esaten dena.

Hiru urtean behin, Europako Parlamentura joaten gara. Horrez gain, beste jarduerak batzuk ere garatzen dira; esate baterako, Italian munduko herrien alde egindako manifestaldia. Hori guztiori nazioarteko erakundeen eta Europa osoan Saharako herriaren adiskideen alde dauden erakundeen bidez egiten da.

Era berean, sentsibilizazioa ere sustatzen dugu, Nazio Batuek emandako mekanismoen bitartez. Urtean bitan, Genevara joaten gara; eta ondoren, Giza Eskubideen Kontseilura. Era berean, New Yorkeko Giza Eskubideen Batzordera ere joaten gara, gai bereziak jorratzen dituzte-eta.

### **Nola garatu daiteke lan hori, testuinguruan errepresioa nagusi denean?**

Ez da erraza, abusuen berri emateko asmoz hitzaldiak eskaintzera kanpora joaten diren ekintzaileak errepresaliatu egiten dituztelako eta ondasunak kentzen dizkietelako etxera itzultzen direnean. Era berean, familiarekiko errepresioa ere badago, euren familia osoa lanetik bota dezaketelako. Errepresio psikologikoa eta fisikoa ematen da, baina oro har, ekintzaileen euren erabakigarritasunari esker

gainditzen dute. Marokoko zigor-kodean bertan, erakunde sahararrak eratzeko dago debekatuta, elkarrekin marokor baten barruan lekurtu behar direlako legez araberako. Debekatuta dago giza eskubideen arloan edonolako jarduerak eta ekintzaileak garatzea, kulturala bada ere. Okupatzailearen esanetan, legez kanpo lan egiten dugu, 30 urteren ondoren Saharako herriak eta gizarteak nahikoa dela esan duten arren.

2005ean, intifada hasi zen, eta arriskuak geure gain hartzeko prest geunden. Lurralde okupatueta ekintzaileak dira ondorioak ordaintzen dituztenak, ordea.

### **Zeintzuk izan dira zuon lanean erdietsitako lorpen handienak?**

Lehenengo eta behin, giza eskubideen urraketa aipatu beharra dago. Aspaldiko borroka den arren, mendebaldekoek eta Marokoko aliatuek ez diote errealitate gordin horri erreparatu lurraldean bertan. Batzuek ez dute hori ikusi nahi, Espainiako gobernuak, esaterako.

Beraz, egoera hori agerian jartzea lortu dugu. Gainera, Saharako agintariek argi eta garbi dute errepresioa murriztu ez duten arren jakin badakitela oso harreman onak ditugula eta ez gaudela isilik geratzeko prest. Izan ere, tortura txikiak gertatzen denean, polizia-gunean bertan salatzen da. Bestetik, 526 desagertuak kontuan hartuta, 400 baino gehiago Alk adoptatu ditu, eta ez da batere erraza hori erdietsia, egitateak onesten ez dituen berreroa delako. Horrez gain, oso gizarte mugatua da, oso agiri gutxi daudelako. Beti-beti, Marokoko pertsonen izaera ukatzen duenez, frogak bilatu behar dira; esate baterako, arma-lizentziak, gidabaimenak..., pertsona hori izan badela eraginkortasunez egiaztatzen.

Era berean, senideekin lan egiten dugu: Genevara eramaten ditugu, eta manifestaldiak egiten ditugu, besteak beste.

1993an, Nazioarteko Amnistia gonbidatu genuen senideekin ikertzera, hau da, ekimen hori jarri genuen abian, gai hauek ahaztu ez zitzaten. 1992. urtean geroztik, Segurtasun Kontseiluaren erresistentzia etengabea izan da, baina batez ere, Hassam II.aren heriotzatik aurrera.

Erregetza aldatzean, Marokoko aliatuek Marokoko prozesu "demokratikoa" irentsi dute. Marokoko erregimena nabarmen uzteko, kereila penala aurkeztu dugu Entzutegi Nazionalan. Horrela, aliatuak eta elkartasuna sortuko dira

Saharako arazoaren alde.

Baltasar Garzónek berak kereilaren izapidea onartu zuen. Prozesua abian jarri da, baina badakigu oso prozesu geldoa dela, bideratzean zenbait prozedura jarri behar direlako abian: lekukotasunak, landa-ikerketa, biktima zuzenak, zeharkako biktimak... Prozesua abian dagoenez, Espainiako justiziak genozidio horretako kriminalak epaituko dituelako itxaropena dugu. Jakin badakigu asko erori egingo direla eta Nazioarteko Auzitegiak deia egingo diela, borrero horiek aginduen katea bete zutelako. Genozidio, gerrako krimen eta gizateriaren aurkako delituagatiko kereila kriminala da.

### **Zertan oinarritzen zarete nazioarteko zuzenbidean?**

Lege organikoan oinarritutako jurisprudentzia unibertsalean, Espainiako auzitegiei eskumena ematen dielako genozidioa, gerrako krimenak eta gizateriaren aurkako delituak jorrazteko, akusatuak Espainiako lurraldean eta Espainiako lurraldetik kanpo dauden kontuan hartu gabe. Lerro juridikoa Pinocheten kasuarena da, eta, are gehiago, espainiarrak direnean. Gogoan eduki behar da desagertuen %70ek Espainiako nortasun-agiria zeramatela bahitu zituztenean. Gertaera horiek 1975. eta 1979. urteen artean jazo zirenez, eskakizun nazionalak eta ez-nazionalak betetzen dituzte.

### **Marokoko elkarten laguntza onartzen duzue?**

Ez, hori eginez gero, Marokoko herrikoak garela onartuko genukeelako. Nolanahi ere, Marokon zertxobait aldatu da egoera, Bide Demokratikoa komunista ohien alderdi politikoa eratu delako. Era berean, Marokoko desagertu ohiek eratutako GKE ere badago, eta harremanetan gaude eurekin, baina laguntzeko baino ez, askotan borreroekin topo egiten dugulako. GKE sahararrak nahi ditugu, edonolako lan-lerro gaitzetsi gabe, marokorrek edo txinatarrak diren kontuan hartu gabe.

### **Nola balioesten duzue zuon GKE etorkizunean, lurralde okupatuetako eta kanpalekuetako erakunde moduan (AFAPREDESA)?**

Lurralde okupatuetako toki-erakundeak sendotu nahi ditugu. Lehen aldiz, lankidetzaz-proiektuetarako lerroak irekitzen ari gara lurralde okupatuetan, eta AFAPREDESA bitartekaria da. Gure iritziz, ordea, ekintzaileak eurak arduratu behar dira horretaz.

Beti-beti, geure lana eta bere zama bizkarrean eraman ditugunez, ekintzaile berriei aholkularitza eskaintzen diegu, euren antolaketa-gaitasunak indartzeko eta giza eskubideen zein lankidetzaren beste erakunde batzuetarako ateak irekitzeko. Izan ere, beste erakunde batzuekiko lotunea gara: AI, Human Rights Watch, Europako Parlamentua eta Espainiako gobernuko Giza Eskubideen Saila.

Bestetik, kereila penala da denbora gehien eramaten digun zeregina. Kereila orain dela bi urte onartu zuten. Lehenengo eta behin, nahitaezko desagertuen biktima zuzenak aurkeztu ziren; eta ostean, zeharkako biktimak.

Ondoren, Entzutegi Nazionalak bi erregu-gutun bidali ditu; bata Marokora; eta bestea, Aljeriara. Aljerian, milaka biktima daudenez eta errefuxiatuen kanpalekua denez, ezin dira handik mugitu. Beraz, epailea bera kanpalekuetara joan da bere taldearekin, biktimen adierazpenak biltzeko. Prozedura hori Aljeriara bidali zen, eta Aljeriak ez zuen inolako oztoporik jarri, ez zuelako inolako arazorik eduki nahi.

Bigarren gutunak, ostera, ez du Marokoren erantzun ofizialik eduki.

Inplikaturik hamahiru jeneralak bide diplomatikoen bitartez informatu dituzte, euren helbideak eman zituzten eta Entzutegi Nazionalera bidali zitezten. Erantzuna hala-moduzkoa izan da, non bizi diren ez dakitela esan dutelako. Goi-karguak direla kontuan hartuta, Marokoko agintarien lankidetzaz hutsaren hurrengoia izan da.

Bestetik, Garzónen aurkako kanpaina mediatikoa dago Marokoko komunikabideetan, eta sahararren aldekoa dela leporatzen diote.

### **Nola ikusten duzu lurralde okupatuen etorkizuna?**

Giza eskubideen arloan, aurrerapauso handiak eman ditugu azken 15 urteotan. Ondoren, lurralde okupatuetako biztanleak bi hamarkadaz isilarazi dituzte, Marokoren inbasiotik 1999ra arte ia-ia atxilotetarik egon ez zelako, talde isolatuena, besterik ez.

Gaur egun, Saharako gizarteko maila bakoitzean islatzen den altxamendua dago, eta ondorioa agerikoa da: Marokoko erregimenari aurre egin behar zaio. Aurten, oroimen historikoaren aldeko GKE bat eta umeen defentsarako beste bat sortu dira, ume asko bortxatzen ari direlako, baina batez ere, institutuetan,

Marokoko bandera kendu eta, haren orde, Saharako bandera jarri dutelako, besterik ez.

Mundu guztia inplikatu behar da borroka honetan. Prozesu itzulezina da, eta, horren ondorioz, gatazkaren irtenbide azkarra lortu behar da, bestela errepresioak errepresio gehiago sortuko duelako.

Intifadaren hasieratik, erresistentzia baketsua izan da. Halakoetan, guztiok dakigu nolakoa izan den Marokoren erantzuna: errepresioa areagotzea eta indarkeriaz erantzutea.

Hori dela-eta, Palestinako lurralde okupatuetakoa bezalako egoerara iristear gaude. Beraz, hauze galdetu beharra dago: noiz arte eutsi ahal izango dute, errepresioak errepresio handiagoa dakarrela kontuan hartuta?

Kasuak larri-larriak dira; esate baterako, Marokoko armadak emakumeak ausaz bortxatzen ditu etxeetan. Amak eta alabak behin eta berriro bortxatzen dituzte seme eta senarren aurrean. Ez dut uste errepresioa geldiarazteko nazioarteko jarduketarik egongo dela. Beraz, gizalegezko erresistentzia baketsuak ez du luzaroan iraungo.

### **Nolako eskariak egiten dizkiezue Sahararen alde lan egiten duten erakundeei?**

Lehenengo eskaria laguntasunarena da, hau da, nazioarteko behaketa ezarri behar da lurralde okupatuetan. Sartu diren guztiak ezkutuan sartu dira, ez modu ofizialean; Mundubat, esaterako.

Nazioarteko behatzailerik badago, biktimen samina arindu egiten da. Biktima batzuk laguntasuna sentitzen dute, eta Saharako erresistentziari ikusizko lekukotasuna eskaintzen diote. Horrela, mezu zuzena bidaltzen zaio Marokori, Saharako herriaren aurka nahi duena egiterik ez duela gogorarazi ahal izateko.

Gure lehenengo eskaera lurraldeko nazioarteko behaketarena da. Erakundeak atek irekitzeko giltzarria izan behar dira, Espainiako gobernuaren aurrean salatu ahal izateko, Espainiako gobernuko kide batek ere ez duelako onartu giza eskubideak urratu egiten direla.

Moratinosek Diputatuen Kongresuan egin duen azken adierazpenaren arabera,

argi dago nondik doan kontua, Marokon giza eskubideen arloan hobekuntzak eman direla adierazi du-eta. Hona hemen erronka: Saharako erresistentziari laguntzea, erakundeak sendotzea eta Marokori eskatzea lurraldea nazioarteko behatzaileentzat irekitzea. Oso aurrerapauso handia izango litzateke.

Gaur egun, turista moduan sartu zaitezke, baina polizia une oro egongo da zure alboan.

Gerra Hotzean bezala, polizia saihestu behar izan duten behatzaileen txostenak daude, eta hori ez da Israelen ere gertatzen. Izan ere, Israelek atzerriko prentsa onartzen du, nahiz eta giza eskubideak urratzen dituen. Marokon, ordea, ez da halakorik gertatzen, egin egiten baduzu, hurrengo egunean Marokotik botatzen zaituztelako.